

ERABAKIA, 2022ko AZAROAREN 21ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2022ko ORDAINSARIEN IGOERA GEHIGARRIA AGINTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa. Abenduaren 28ko 22/2021 Legeak, 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, 19. artikuluan ezartzen ditu sektore publikoko langileen gastuen arloko jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa.

Artikulu horretako bigarren atalaren arabera, sektore publikoko langileen 2022ko ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2tik gorako gehikuntza orokorra izan, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, erkatutako bi aldiak homogeneotasunez hartuta, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ehuneko hori bera aplikatuko zaie sektore publikoko goi kargudunei eta bestelako zuzendariei, eta lan kontratudun langileei.

Bigarrena.- Abenduaren 23ko 11/2021 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 19. artikuluan xedatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsariak.

Lan kontratudun langileak direla eta, 19. artikuluko 9. atalak dio langile horien soldata masak 2022. urtean ezin izango duela %2tik gorako gehikuntzarik izan 2021ean ezarritakoaren aldean.

Hirugarrena.- Gerora, 2022ko urriaren 19an, urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretua argitaratu zen BOEn (251. zk.), zeinaren bidez onartu ziren energia kontsumitzaileen babesa indartzeko eta gas naturalaren kontsumoa murrizten laguntzeko neurriak, "segurtasun+ zure energiarentzat (+SE)" plana aplikatuz, bai eta sektore publikoko langileen ordainsariei buruzko neurriak eta lehorreak kaltetutako nekazaritzako behin-behineko langileak babesteko neurriak ere.

Honako hau dio 23. artikuluan, *Incremento retributivo adicional del personal al servicio del sector público para el año 2022* izenburukoan:

1.-Adicionalmente a lo dispuesto en los capítulos I y II del título III de la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022, y demás preceptos concordantes, con efectos de 1 de enero de 2022 las retribuciones del personal al servicio del sector público experimentarán un incremento adicional del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021.

2. Ese incremento adicional se efectuará en los mismos términos dispuestos por el artículo 19. Dos, y seguirá las siguientes reglas:

1.^a Se aplicará sobre las retribuciones vigentes el 31 de diciembre de 2021, de forma que la suma de ambos consolidará, en todo caso, un incremento retributivo global máximo para el ejercicio 2022 del 3,5 por ciento.

2.^a Se materializará en la nómina del mes de noviembre de 2022, abonándose como atrasos el incremento correspondiente a los meses de enero a octubre de este año.

3.^a En el ámbito de las comunidades autónomas y entidades locales se tendrá que materializar el pago antes del 31 de diciembre de 2022 y, en todo caso, con anterioridad al 31 de marzo de 2023.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena. Gerenteak eskumena dauka gai honetaz erabakiak hartzeko, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia).

Bigarrena.- Urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuko 23. artikuluari jarraituz:

1.- 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. kapituluetan eta bestelako arau osagarrietan ezarritakoaz gainera, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, sektore publikoko langileen ordainsariek ehuneko 1,5eko igoera gehigarri bat izango dute 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

2. Igoera gehigarri hori 19.Bi artikuluan ezarritako baldintza berberetan egingo da eta aplikatuko zaie 2021eko abenduaren 31n indarrean egondako ordainsariei, halako moldez non, bi igoerak baturik, 2022 ekitaldian ordainsariek gehienez 3,5eko igoera globala izango duten.

Hortaz, honako zenbateko hauek jasoko dituzte hamabi hilekotan zatiturik, soldata eta hirurteko gisa, 2022ko urtarriletik abendura arteko nomina arruntetan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
A1	15.082,72	580,51
A2	13.041,75	473,45
B	11.400,19	415,32
C1	9.792,18	358,32
C2	8.149,76	243,93
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	7.459,20	183,57

2. Aurreko atalean aipatzen diren funtzionarioek zenbateko hauek jasoko dituzte aparteko ordainsari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa, 2022ko ekain eta abenduan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
A1	775,61	29,86
A2	792,63	28,76
B	821,10	29,93
C1	705,28	25,78
C2	672,96	20,12
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	621,60	15,30

Hirugarrena. Irakasle funtzionarioen kasuan, eta lanpostu mailako osagarriari dagokionez, aplikatu behar da urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuko 23. artikuluan jasotakoa. Hortaz, hau da ordainsari maila bakoitzean jasoko den zenbatekoa:

Maila	2022ko zenbatekoa
30	13.174,76
29	11.817,13
28	11.320,58
27	10.823,16
26	9.495,59
25	8.424,61
24	7.927,56
23	7.431,26
22	6.933,84
21	6.437,66
20	5.979,98
19	5.674,82
18	5.369,41
17	5.063,88
16	4.759,22
15	4.453,32
14	4.148,53
13	3.842,75
12	3.537,22
11	3.231,68
10	2.926,77

Laugarrena. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, lan kontratudun langileen soldata masa ezingo da igo % 3,5 baino gehiago, 2021eko abenduaren 31n indarrean zegoenaren aldean.

Bosgarrena. Osagarri pertsonalak eta aldi baterakoak eta zerbitzu ordainak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, eta, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, haien kopuru indibidualak ezingo dira igo % 3,5 baino gehiago, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenaren aldean.

Halaber, ez zaie aplikatuko erabaki honetan adierazitakoa ordainsarien igoera orokorraren bidez eguneratu ezin diren ordainsari kontzeptuei, aplikatu beharreko araudiak dioenarekin bat etorrira.

Seigarrena. AZPko funtzionarioen kasuan, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 79.1.a) artikuluaaren arabera, honako hau izango da lanpostu mailako osagarriari dagokion zenbatekoa 2022. urtean, maila bakoitzean. Kopuru hori hamabi hilekotan zatiturik ordainduko da:

Maila	Zenbatekoa
30	18.926,59
29	16.823,39
28	15.035,90
27	13.353,61
26	11.776,64
25	10.199,55
24	9.568,62
23	8.885,39
22	8.254,21
21	7.623,77
20	7.098,15
19	6.677,36
18	6.256,82
17	5.888,20
16	5.520,57
15	5.152,56
14	4.784,81
13	4.416,43
12	4.048,80
11	3.680,67
10	3.388,42

Zazpigarrena. Konfiantzako langileen ordainsariak % 3,5 gehituko dira 2022ko urtarrilaren 1etik, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, hargatik eragotzi gabe antzintasuna dela-eta dagokiena.

ERABAKI DUT

Lehena. Agindua ematea 2022ko ordainsariei igoera gehigarria egiteko, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, zuzenbideko bigarren oinarritik zazpigarren oinarriara arte jasota dagoen moduan.

Bigarrena.- Argitaratzea erabaki hau UPV/EHUren webguneko Gardentasun Atarian.

Lore Bilbao Artetxe

UPV/EHUko GERENTEA

ERREKURTSOAK

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta kontra egiteko administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena: 8. artikulua).